



**Asteazkena**  
**2008-09-17**

VIURTEA 1510.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



**JOSE MANUEL LULUAGA** TOLOSA CF-REN ENTRENATZAILEA

«Helburuak badauzkagu,  
baina, epe laburrera  
begiratzekoak dira»

**TOLOSA** Tolosa CFk pasa den larunbatean hasi zuen denboraldi berria preferente mailan; 0-3 irabazi zuen Anaitasuna taldearen aurka 3

## Zaldi Egunak izan duen arrakastarekin gustura geratu dira

**LEITZA** Aurrera Perra Taldekoak «harrituta» daude, ez baitzuten hainbeste jende espero 7

## Ekitaldi ugari antolatu dituzte hilaren 28rako, Jubilatuen Egunean

**LEABURU-TXARAMA** Toka, dantzariak eta bazkaria izango dira, besteak beste 6

## Auzitegi Gorenak legez kanpo utzi du EAE-ANV

**POLITIKA** 8 herritan du alkatetza 2 eskualdeetan; mobilizazioak deitu dituzte egoera salatzekeo 24



N.U.

**JON AZPIROZ** ZALDI RAID LASTERKETAREN ANTOLATZAILEA

«Zaldiaren egoera da kontuan hartzen dena Raid Lasterketan»

**BEDAIO** Hilaren 28rako antolatu dute I. Zaldi Raid Lasterketa; heziketazko proba izango da 5

## Festa Batzordeak «istilurik gabeko» jaiak izan direla dio

**LIZARTZA** Herritar askok hartu duela parte azpimarratu dute jaien balantzea egitean 6

# EAE-ANV legeez kanpo utzi du Espainiako Auzitegi Gorenak

**Politika** » Bi eskualdeetan, 8 herritan du alkatetza; oraindik, ez dakite zein ondorio izango duen epaiak; gaurko mobilizazioetara deitu dituzte herritarrak.

## ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Gorenak EAE-ANV legeez kanpo uzteko epaia atera zuen atzo, eta ondorioz, alderdi politiko hau desegiteko agindua eman zuen, baita haren ondasun guztiak kentzeko ere. Tolosaldeari eta Leitzaldeari dagokionez, 8 herritan ditu alkatetzak EAE-ANVk, Alegia, Ikaztegieta, Aduna, Anoeta, Iruira, Orexa, Leizta eta Villabonan, hain zuzen.

Auzitegi Gorenak hartutako erabaki horrek, beraz, eragin zuzena izango du herri horietan, baina bertako alkateek, «espero zuten» arren, ez dakite zehatz mehatz izango dituen ondorioak. «Ez dakigu zer ekarriko duen honek. Pentsatzen dugu suspensio egoeran, hau da, egon gareneko egoera *anormal* berdinean, jarraituko dugula, baina egia esan karguak norbanakoarenak direnez, ez dakigu zein egoera juridikoan geratuko garen. Epaia, osorik, ez dugu eza-gutzen oraindik, eta beraz zaila da jakitea zer ekarriko digun honek zehazki», adierazi dute Villabonako Udaletik. Baina, ondorioak ondorio, «herriak aukeratu» zitueta eta «herriaren alde lan egiten jarraituko» dutela argi dute. Halaber, «demokrazia ustel baten aurrean gaudela uzten du agerian honek, herri honetan ez dira oinarriko eskubideak errespetatzen, eta geroz eta agerikoagoa da», gehitzen dute.

## Bi argudio nagusi

Legez kanpo uzteko eskaera egina zuten Espainiako Estatuaren abokatuak eta Fiskaltzak. Gorenako 61eko sala herenegun hasi zen aztertzen EAE-ANVko defentsaren



Garzonek EAE-ANVren jarduna eten zuela salatzen Villabonan otsailean eginiko manifestazioa. N. URBIZU

alegazioak eta atzo eman zuen epaia. Aho batez hartu du erabakia, eta Francisco Jose Hernandez Gorenako presidentek atzo azaldu zuen epaia bera hurrengo egunetan argitaratuko dutela.

Estatuaren abokatuak eta fiskalak bi argudio nagusi erabili dituzte EAE-ANVren aurka: batetik, Batasunari laguntza eta sostengu politiko-instituzionala ematea, eta, bestetik, Batasunarekin lotura finantza-ekonomikoa izatea.

## «Auzian frogarik eza»

EAE-ANVren defentsak azken alegazioetan nabarmendu zuzenez, «alderdia legeez kanporatzeko auzio frogatik frogatik saiok frogarik eza agerian uzteko balio izan dute». Kasu batzuetan, Estatu abokatuak eta fiskalak onartu egin zuten euren aurkeztutako frogen baliorik eza, azken alegazioetan horien aipamenik ez zutelako egin. Hala, defentsaren iritziz, akusazioek argudiatutako jarduerak batzuk ez dira nahiko frogatu legeez kanporatzeko motiboekin loturarik izan dezaketarik —AHTren kontrako kanpainak eta *Demokrazia Zero* lelokoa, esaterako—. Beste kasu batzuetan, «akreditatu ez diren gertaeretan» oina-

rritzen dira —Batasuna eta bere ki-deak finantzatzeko akusazioaren kasuan—. Beste batzuek ez dute zerikusirik legeez kanporatzeko prozesuarekin. Beste jarduerak batzuk, salbuespenak edo kasu isolatuak dira, eta beste zenbait «askatasun ideologikoaren eta adierazpen askatasunaren babespean» daude. Bestalde, EHAKri buruzko auzi saioa ere egin zuten irailean, eta alderdi horrek herenegun aurkeztu zituen alegazioak. Auzitegi Gorenako 61. sala berezi gaur hasiko da aztertzen EHAKren kontrako legeez kanporatzeko auzia.

## Mobilizazioetara joateko deia

Amnistiaren Aldeko Mugimendutik, «Frankismoaren geroz eta antzekotasun gehiago dituen sasi demokrazia» bat bizi dugula salatu dute; «EAE-ANVren legeez kanporatzeak ondo azaltzen du hau; erregimen frankistak legeez kanpo utzi zuen alderdi politiko bera utzi du legeez kanpo Espainiako Estatuak, demokrazia deitzen dioten, baina oinarriko eskubide demokratikoak ukatuak diren eredu errejimen honetan». Halaber, Europa mailan «parekorik ez duten salbuespeneko neurriak» ikusten ari garela gehitu dute. «Herri ho-

netan gatazka politiko bat dago, eta gatazka politikoak ez dira errepresionen bidetik konpontzen», dioite.

Hain zuzen ere, gaur emango dute Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako auziaren epaia Madrilen; honen harira, eta EAE-ANVren legeez kanporatzea salatzen gaur burutuko diren mobilizazioetan parte hartzea deitu dituzte herritarrak Amnistiaren Aldeko Mugimendutik.

## Eskualdeko zortzi herritan alkatetza

1930ean sortu zuten Eusko Abertzale Ekintza EAE-ANV alderdia. Ordezkaritza esanguratsua izan zuen Errepublikara garaitan eta modu aktiboan hartu zuen parte Espainiako Gerran. Jose Antonio Agirre lehendakari zuten lehen Eusko Jaurilartzako kide izan zen. 2007an udal eta foru hauteskundeetan izan zen; ez leku denetan, haren hainbat zerrenda balogabatu egin zituelako Espainiako Justiziari.

Tolosaldean eta Leitzaldean 8 herritan lortu zuen alkatetza, eta guztiak, 8.062 bozka batu zituen, legeez kanpo zeuden herritarrak lortutakoak batuz gero.

**@ Zurea da hitza.** Eskualdeari buruz dituzun berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. *Zurea da hitza* izeneko atalera jo besterik ez duzu egin behar horretarako. Bertan, kekak, iradokizunak, eskerrak... sar ditzakezu, eta argazkiekin lagundurik nahi izanez gero. Orain arte sartutakoak ere ikus ditzakezu, eta iritziak eman ere bai. Atal honetan sartutako berriak ostialero argitaratzen ditugu egunkarian: [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## » ERREAKZIOAK

### 1. Zein hausnarketa egiten duzu EAE-ANVren legeez kanporatzearen aurrean?

«Erabaki politiko argi bat izan da»

#### Jabier Zabalo

LEITZAKO ALKATEA (EAE-ANV)

«Garzonen maniobra hartatik aurrera, espero genuen horrelako gauzak gerta zitezkeela. Erabaki politiko argi bat da. Beraiek gainera Auzitegi Gorenaren berritzean sartuta daude eta erabaki guztiak hartu behar dituzte hilaren 22rako. EHAKrekin bezala, ANVrekin. Garzonen garaitik aurrera guk talde bezala ezin izan dugu funtzionatu, eta zingotzien aktak pertsonal dirak, ez daukagu talderik eta horrela jarraituko dugula pentsatzen dut. Hasieratik taldeak ez direnez eratu, berdin jarraituko dugu. Baina erabakia noraino eraman nahi duten aurrera, hori ez dakit».

«Komenigarria da Udalean bere ordezkariek izatea»

#### Jokin Bildarratz

EUDEKO LEHENDAKARIA

«Honen guztiaren oinarria Alderdiaren Legean dago. Berritzaileak erabaki batek eragina du gurean. Hau da, kanpotek eta urrutitik hartutako erabaki batek. Hala ere, gure ustetan, demokraziaren eta elkarbizitzaren onurarako, komenigarria da mugimendua hau barruan egotea. Azken batean, herritarren ia %10a ordezkatzen dute eta gizarteak bere ordezkariek Udalean izatea demokratikoagoa da. Bestetik, ezker abertzaleak ere zerbait pentsatzen hasi beharko du; ETArekiko duen jarrera garbi utzi behar du, eta loturak apurtu».

«Jokatzen arauak bete gabe ezin da jolastu»

#### Oscar Renedo

TOLOSAKO PSE-EE-REN ZINEGOTZIA

«Auzitegi Gorenaren erabakia onartzen dugu, eta ez gara hori epaitzen hasiko. Indarkeria babesten duen alderdia da. Jokatzeko arau batzuk daude, eta arau hauek betetzen ez dituenak ezin du jolastu. Egunen batean hasi beharko dute gainontzekoekin batera jolasten, beraiek baitira gaitzen ari direnak. Denbora aurrera doa, eta hau denbora galduta da berriantzat».

«Justiziaren esku utzi behar dira justiziaren gaiak»

#### Anjel Yañez

TOLOSAKO PP-REN ZINEGOTZIA

«Egia esan gai horiek ez naute gehiegi ardurutzen, izan ere, justiziaren gaiak, horixe, justiziaren esku uztea egokiago dela iruditzen zait. Ni beste gai txikiago batzuk arduratzen naute, baina horrela-koek ez».

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Autoa.** Fiat Ducato, 2007 urtekoa. 120 zaldi. 28.000 kilometro. Lau pertsonentzako, lo egin eta bidaiatzeko hornitua. Klimatizadorea, ABS frenuak, berogailu estati-koa, aurreko eserleku giratorioak. Komuna ere badu. Harremanetarako: 626 78 68 17ra deitu edo

[amaiaaro@terra.es](mailto:amaiaaro@terra.es) era bidali mezua.

■ **Autoa.** Peugeot Partner diesela. Egoera onean. Interesatuek deitu 649 51 09 41 telefono zenbakira.

### LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperien-

tzia duen kamarera behar dugu. Ildandetan jai. Deitu 650 04 31 39 zenbakira.

### ALOKAIRUA

■ **Etxea.** Etxebizitza bat hartuko guburu alokairuan Tolosan, Ibarren, Villabonan edo inguruan. 635 71 24 44.

**E Elkarrizketa**

**JOSE MANUEL LULUAGA** > Tolosa CFko entrenatzailea



ESTI EZEIZA

# «Epe laburreko helburuetan bakarrik pentsatu behar dugu»

**Futbola** » Joan den igandean hasi zuen denboraldia Tolosa CFk. Lehendabizikoan, 0-3 irabazi zuen Anaitasunaren aurka.

**ESTI EZEIZA**

Joan den asteburuan ekin zion berriro Tolosak denboraldi berriari, garaipen batekin gainera. Oraingo honetan, hala ere, hirugarren mailan aritu beharrean, preferentean izango da talde urdina. Mutilko adria hau zuzentzen berriro ere Jose Manuel Luluaga ariko da.

**0-3 irabazi zenuten igandean Anaitasunaren aurka, zer moduz joan zen orohar partida?**

Taldea oso indartsu atera zela da garrantzitsua. Gogoz ateraziren zelaira. Hori dela eta, partida errazagoa izan zen.

**Denboraldiko lehen partida irabaztea, oso garrantzitsua izango da ez?**

Lehen partida idabaziz gero, jokalariek konfidantza hartzen dute. Gainera, ikusita aurrendenboraldian arazo asko izan ditugula, garrantzitsua izan da irabaziz hasia. Aurrendenboraldian, jokalariek batzuk oportetan zeudela eta, ez gara elkartu entrenatzeko, eta zalantza genituen denboraldi hasierarako ere.

**Aldaketa handiak egon al dira taldean?**

Baja batzuk izan ditugu, hirugarren mailan jarraitu nahi baitzuten jokalariek batzuek. Tolosako talde bat daukagu, eta hau oso garrantzitsua da niretzako. Beheko jokala-

riei irtenbidea ematen baitiegu horrela. Orohar talde nahiko gaztea daukagu esan daiteke.

**Mailaz jaitsi ondoren, ilusio eta gogo berarekin al daude jokalariek?**

Bai, helburu batzuk baitaizkagu, baina hauek epe laburrera begira-

**Garrantzi handia eman behar zaie jokalariei; dirurik irabazten ez badute ere, daukaten guztia ematen dute**

koak dira. Horietako bat da, datorren igandeko norgehiagoka irabaztea, eta joan den igandean aterata zelaira. Mailaz jaitsita ere, helburuak izan behar du igandero, igandero irabazten joatea.

**Eta, luzerako helbururik finkatu al duzue?**

Epe laburrerako helburuetan bakarrik pentsatu beharra daukagu. Azken batean, alferrikakoa da luzerakoak finkatzea, gero epe laburrekoak ez baldin baditugu lortzen. Lehendabizi, ongi entrenatu beharra daukagu, eta asteburuetan ahal dugun guztia eman.

**Aldaketa handia al dago 3. mailatik preferentera?**

Bai. Agian, denboraldiaren amaie-

ran, goiko postuetan geratzen diren taldeak onak izango dira, baina alde handiagoa dago.

**Zein da Tolosako taldearen bereizgarri nabarmena?**

Jokalariei garrantzi handiagoa eman beharra dago, egiten duten lanagatik. Ordu asko sartzen dituzte entrenatzen eta partidak izugarri bizitzen dituzte. Dirurik irabazten ez badute ere, daukaten guztia ematen dute. Futbolari bali handia ematen diote. Azken batean, hori da talde honengan bereiztuko nukeen ezaugarrietako bat.

**Denboraldi amaieran, arazo ekonomikoak aipatzen zenituzten, orain, egoera berdina al da?**

Gure nahia, zuzendaritzarena, berriro datorren urtean 3. mailara igotzea da. Baina hau gertatuko balitz, berriro arazo berarekin aurkituko gineteke. Jokalariei ordaintzeko dirurik ez baldin badugu

aurkitzen, berriro jaitsi egingo da taldea oso zaila baita horrelako maila batean mantentzea.

**Hirugarren mailara berriro igotzeko aukerak ba al ditu taldeak?**

Hori amaieran ikusi beharko da, baina nire helburua da, gauzak ahal den ondoen egitea, eta denboraldiaren amaieran non gauden kontuan hartuta, ipiniko ditugu beste helmuga batzuk.

**Harrobiari dagokionean, ba al dago?**

Bai, badago, baina horiei irtenbidea eman behar zaie. Ez du balio harrobia izateak, gero non aritu ez baldin badute.

**Igandean honetan Arrasate izango duzue aurkari.**

Igandean, etxean jokatuko dugu. Aurrekoan bezala irabaztera joan gara, baina hankak lurrean jarrita. Oraindik harri bat besterik ez dugu jarri, eta asko behar ditugu pareta osatzeko.

**L Laburrak**

**Gaur hasiko dituzte eskolak EPAko ikasleek**

**HEZKUNTZA** » Tolosako Helduen Hezkuntza (EPA) ikasturte honetako eskolak gaur hasiko dira. Igaralde kalean dago ikastetxearen egoitza nagusia eta hara joan beharko dute ikasleek.

**'West Side Story' filma ikusgai izango da bihar**

**KULTURA** » Bihar, Zine Forumean *West Side Story* filma izango da ikusgai. Ohi bezala, bi emanaldi izango dira, lehendabizikoa 19:00etan eta bigarrena, 21:45ean. Hamar oskar irabazi zituena lan honek, eta zineetako musikal garrantzitsuenetako bat bezala jotzen da.

**Orfeoiaren hurrengo saiorako sarrerak salgai**

**KULTURA** » Tolosako Orfeoiaren 10. urteurrenako ospakizunen baitan, Tolosan eskaini zuen lehen obra plazaratuko dute berriro: Jesus Guridiren *El Caserio*. Zartzuela zailek ekoizpen honetaz gozatzeko aukera ona dute urriaren 18an, 20:30ean, Leidor antzokian. Zaleentzat, sarrerak salgai daude dagoeneko Kutxaren webgunean, eta zinemako leihatilan.

**Tolosa CFko jokalarien gurasoentzat bilera, bihar**

**KIROLAK** » Ostegunean, Kultur Etxeko beheko solairuan, Tolosa CFko taldeetan jokatzen duten gaztetxoaren gurasoentzako bilera izango da. Jubeniletatik hasi eta infantil artekoenentzat izango da batzara. Hau 19:00etan hasiko da.

**2009ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa martxan**

**GIZARTEA** » Tolargik eta Tolosagasa 2009 urteko Tolosako egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri dute abian. Honetarako aukeratu dute gaia Tolosa eta bere jaiak dira. Argazki lehiaketa parte hartu nahi dutenek nahi adina argazki aurkeztu ahal izango dituzte Tolargiren edo Tolosagasaren eraikinerako. Honetarako epea hilaren 29an amaituko da.

**BARNE ANTOLAKETAKO ARDURADUNA (08BAA Erreferentzia)**  
Euskal Editorea SL egoitza nagusia Andoainen duen enpresak Barne Antolaketako Arduraduna lanpostua bete behar du aldi baterako. Lanpostuko zeregin nagusia taldeko barne antolaketak kudeatzea eta laneko prozesu eta emaitzen jarraipena egin eta dokumentatzea izango da.

- Eskaizten da:**
- 18 hilabeteko kontratua.
  - Astean 20 orduko lanaldia.
  - Berehala hasia.
- Eskaizten da:**
- Prozesuen antolaketaren eta kalitate sistemen inguruko ezagutza izatea.
  - Unibertsitate mailako ikasketak izatea kontuan hartuko da.
  - Ofimatika programak erabiltzen jakitea.
  - Datuak antolatzeko eta kudeatzeko gaitasuna izatea.
  - Komunikaziorako gaitasuna izatea.
  - Antzeko lanetan esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Lanpostua betetzeko interesa duenak CV eguneratua bidal dezala, erreferentzia zehaztuz, gizabaliabideak@jarduna.net helbidera, irailaren 26a baino lehen.

**2008ko USATEGIEN ENKANTEA BIRGARRO ETA USOA ARESO (NAFARROA)**  
TEL 948510327-608928626  
Donostiatik 20 minututara Paradetaraino sarridea kotxez  
Enkantea Udalezko Batzar Aretoan burutuko da.  
1. enkantea: irailaren 20an, larunbata, 19:00etan.  
2. enkantea: irailaren 27an, larunbata, 19:00etan.

# INOIZ BAINO BEREZIAGO...

**Irura** » Herriko biztanleek urriaren 5eko kilometroen jaialdia buruan dutela helduko dira aurtengo San Miguel jaiak; bi asteburuz haur, gazteek nahiz helduek zer gozatua izango dute.

## » SANMIGUELAK: EGITARAUA EGUNEZ EGUN

### Etzi, irailak 19

■ **19:30.** Jaien hasiera: Suziria, Erensugea ateratzea txalaparta-hotsekin eta kalejira buruhandi eta erraldoiekin eta The Jones Brothers txarangarekin.  
■ **21:00.** Barrikotea San Miguel plazan The Jones Brothers txarangarekin.  
■ **24:00.** Dantzaldia Joselu anaiaik taldearekin, San Miguel plazan.

### Irailak 20, larunbata (Haur eta gazteen eguna)

■ **09:00.** Gazte Festa San Miguel plazatik aterata.  
■ **12:00.** Marrazki lehiaketa San Miguel plazan.  
■ **13:00.** Jokuak haur eta gaztetxoen entzatz San Miguel plazan.  
■ **14:00.** Gazteen sokadantza San Miguel plazan.  
■ **14:30.** Haurren bazkaria San Miguel plazan.  
■ **14:30.** Gazte-festako bazkaria Zaharren Biltokian.  
■ **15:00.** Txu Txu tren familia-entzatz San Miguel plazatik eta puzgarriak garbiletuko plazan.  
■ **18:00.** Gazteentzako zezen mekanikoa garbiletuko plazan.  
■ **18:00.** Haurrentzako dantzaldia Xurdin eta bere lagunekin Loatzo plazan (euriarekin, pilotalekuan).  
■ **19:45.** Sagardo dastaketa San Miguel plazan. (Euria eginez gero, pilotalekuan).  
■ **21:00.** Gazte-festako afaria Aizpurua jatetxean.  
■ **24:00.** Musika-emanaldia San Miguel plazan La Pegatina Sound sistem eta Hesian taldeekin.

### Irailak 21, igandea

■ **12:30.** Gorritiren abereak

San Miguel plazan izango dira ikusgai.

■ **17:30.** Irurako eta inguruko herrietako dantzari-txikien saioa San Miguel plazan. Ondoren herri kiro-lak San Miguel plazan: Harrijaso-tzailea Mari Jose Sardon: 100 Kgko bolarekin marka-saiakera egingo du 5 minutuko txanda-bakarrean (Emakume batek bolarekin marka saiakera egiten duen lehenengo aldia da). Aizkolaria: Mujika eta Otaegi Lasa eta Txapartegiren aurka. (Euria eginez gero, pilotalekuan).  
■ **20:00.** Txinparta trikitalari taldea San Miguel plazan.

### Irailak 26, ostirala

■ **18:00.** Irurako Pilota Eskolako haurren arteko xare eta pala partidak trinketean  
■ **Ondoren.** Kalejira Loatzo musika-eskolako txistulariekin eta buruhandi eta erraldoiekin trinketetik Agusti-neneko plazara eta txistorjatea Share Elkartearen.  
■ **22:30.** Play Back jaialdia frontoian.

### Irailak 27, larunbata

■ **11:00etan eta 16:00etan.** Haur parkea Garbiletuko plazan.  
■ **18:30.** *Kanpanolue* kale-antzerkia San Miguel Plazan.  
■ **19:30.** Bertso-saioa San Miguel plazan Maialen Lujanbio, Xabier Paia, Sustrai Colina eta Jexux Mari Irazu bertolarien aurka. Aurkezlea: Unai Elizasu.  
■ **23:00.** Oinkari dantza taldea *Aspaldikotik* ikuskizunarekin San Miguel plazan. (Euria eginez gero, pilotalekuan).  
■ **24:30.** 12:30ean; Gaupasa Triki

Take taldearekin San Miguel plazan.

### Irailak 28, igandea (Bikoteen eguna)

■ **12:00.** Apar-festa San Miguel plazan.  
■ **14:30.** Bikoteen bazkaria Aizpurua jatetxean. Ondoren musika dantzagarria zuzenean Olatz Kortza eta Xavier Zubeldiarekin. Oharra: zaintza-zerbitzua egongo da ludotekan 2/9 urteko haurrentzako gurasoak bazkarira joan ahal izateko.  
■ **17:30.** Haurrentzako joku-herrikoia Xiba taldearen eskutik San Miguel plazan.  
■ **20:00.** Itzeder eta Joseba Trikitilariak San Miguel plazan.  
■ **23:00.** Reyes de Mexiko mariachiaren emanaldia plazan.

### Irailak 29, astelehena (San Miguel Eguna)

■ **09:00.** Goiz-eresia txistulariekin kaleetan zehar.  
■ **11:00.** Herriko zaindariaren omenezko meza nagusia San Miguel elizan. Ondoren dantzari txikien saioa. Jarraian hamaiketako herrikoia San Miguel plazan eta Gazte Alaiak Elkartearen.  
■ **18:00.** Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia San Miguel plazan.  
■ **19:00.** Kale-antzerkia San Miguel plazan.  
■ **Jarraian.** Rua Mayor taldearen musika eta dantza latinoen ikusizuna San Miguel plazan.  
■ **21:30.** Erensugea erretzea San Miguel plazan jaiak bukatzeko.

### Urriak 12, igandea (Jubilatu eta pentsiodunen eguna)

■ **12:00.** Meza nagusia.  
■ **14:30.** Jubilatuen bazkaria Zaharren Biltokian. Ondoren jokuetak sariak banatzea eta musika dantzagarria zuzenean Joxe Javier Mendizabalekin.

### ERREDAKZIOA

Ilusioa, ikastola, herri giroa... erakitzen lagunduko du aurtengo kilometroen jaialdiak Iruran. Atzetik eta aurretik lan handia eta atarikoan... herriko jaiak. Herensugea ohi baino lehenago hasiko da garra pizten, etzi bertan helduko baita udaltxera.

Bi asteburuz luzatuko dira San Miguel jaiak. Etzi, Herensugearen etorreraren ondoren, barrikotea izango da plazan. Udalak edaria jarriko du eta herritarrek janaria jarriko dute. Urtero jende ugari biltzen du ekitaldiak, «oso ekitaldi herrikoia» delako. Horretaz gain, etxeko gaztetxoentzako eguna izango da larunbatean, eta bikoteen eguna ere errepikatuko dute datorren asteburuan, irailaren 28an, hain zuzen ere.

### Marka ahalegina

Aipagarriak diren ekitaldien artean, herri kirol saioa dago. Izan ere,

datorren igandean, irailak 21, 18.30ean hasita, Marijose Sardonek marka ahalegina egingo du Irurako frontoian. 100 kiloko bolarekin bost minutuko saio bat egingo du, orain arte emakume batek inoiz plazan egin ez duena egiteko asmoarekin. Saiakera, Euskadiko Herri Kirol Federazioak kontrolatuko du eta jaialdian, Txapartegi-Otaegi Mujika-Lasaren aurka ari-tuko dira aizkoran.

### Jubilatu eta pentsiodunen eguna, astebera beranduago

Jubilatu eta pentsiodunen eguna aurtengo astebera beranduago egingo dute, urriaren 12an, astebera lehenago kilometroen jaialdia izango baita.

Herria pixkanaka prestatzen ari da euskaltzaleen jaialdirako eta Udalak bandoa atera du bizilagunentzat. Urriaren 4ean, eguerditik aurrera, autoak herrigunetik atera beharko dira eta ezingo dira bertan aparkatu.

Horretarako, kilometroetako antolatzaileek bi aparkaleku baimenduko dituzte, bizilagunek bertan autoak utzi ahal izateko.



laz bezalaxe aurtengo Gorritiren animaliak izango dira plazan. A. OTEZABAL

**Pertsona bat behar da Tolosaldeko kafetegiko okindegi baterako**

**616 73 28 97**

txokoa  
**h**

**4 afari pare**  
zozketan

Tolosako zerkausian  
Irailak 18, 19, 20 eta 21ean  
ospatuko den  
**Garagardo festarako**



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez telefono zenbaki honetara: **943 65 56 95**

**E Elkarrizketa**

**JON AZPIROZ** > Zaldi Raid lasterketaren antolatzailea

# «Raid lasterketatan zaldiaren egoera da kontuan hartzen dena»

**Bedaio** » Bedaiok paisaia aproposa du zaldiz ibiltzeko ere, eta hilaren 28rako I. Zaldi Raid Lasterketa berezia prestatu dute.

**NEREA URBIZU**

Hilaren 28an Zaldi Raid Lasterketa izango da Bedaion. Entzun, entzun da zer den, baina hobe ulertzeko zer egokiago antolatzailearen hitzetan entzutea baino? Jon Azpiroz ari da, besteak beste, honen atzetik (Bedaio, 1975).

**Zaldi berezia behar da Zaldi Raid Lasterketan parte hartzeko?**

Ez. Raid lasterketa batean zaldi arabiarrek hoberenak badira ere, noski, Bedaiorako ez da zaldi berezirik behar. Antolatzen ari garen proba honek heziketakoa nahi du izan eta hortaz, egunero ibiltzen dugun zaldia trebatu.

**Parte-hartzaileen kopurua mugatua da?**

Zorritzarrez bai. Ez ibilbidearengatik, ez zaldiengatik, ez Bedaion zaldiz ibiltzeko bideak ez daudelako ere. Bedaioko kaskoan dauden azpiegiturak, aparkalekuak murriztuak dira eta zaldiak garraiatzeko erabiltzen diren erremolkeek batuko duten bolumenak ekarriko ditu arazo gehien. Hortaz, pentsatzen dugu 30 erremolke eta 4x4 ibilgailu baino gehiagorekin arazoak izan ditzakegula: horregatik murriztuko dugu. Gainera, lehenengo urtea denez, jendea gustura geratzea nahi dugu hurrengo urtean berriro ere bueltatzeko.

**Ikastaro bat ere antolatu zenuen, baina bertan parte hartu ez zuenak ere parte har dezake...**

Bai, noski. Ekaineko ikastarotxo horretan raid bat zer den adierazi nahi genuen, telebistan ikusi izan ditugu salto probak edo hipodromoko karrerak baita hondartzak eta Abaltzisketako igoera probak ere. Lehengo larunbatean Leitzañan egin zen Zaldi Egunean bezala Bedaion zaldiaren mundu zabal horren beste zati bat ezagutu nahi

dugu. Eta naturarekin lotuz gero, bada, hementxe dugu Bedaioko Raid hau.

**Bi fase edo zati daude ibilbidean, ezta?**

Raid bat erresistentzia motako lasterketa da. Txikiena 40 kilometrokoa izaten da eta 120koak ere egi ten dira Espainia mailan. Bedaion heziketazko lasterketa bat egin nahi dugu, hortan dabilzanek entrenamendu gisa egin dezaten eta bestelakoek ikus dezaten zer den raid motako lasterketa bat. 28 km inguruko zirkuitua egin dugu, eta bi partetan zatiturik dago: faseka

**Zenbait aldapa gogor daude eta zaldia kontrolatu nahi badugu, mantxo joan beharko**

zaitzen dira, eta faseen bitartean zaldiari zenbait parametro begiratzeko zaitziko, jarraitzeko ondo dagoen edo erretiratu beharra dagoen ikusteko. Hau oso garrantzitsua da jendeak ulertzeko.

**Zaldiaren egoera kontuan hartzen da, beraz?**

Lehenengo zaldiaren osasuna jarritzen da eta gero lasterketaren emaitza. Bai lasterketa hasi aurretik, fase artean eta bukaeran zaldiari zenbait atal begiratzeko zaitziko, osasuntsu dagoen ala ez ikusteko: bihotz taupadak, hidratazioa, hesteen mugimendua, hankak ondo zapaltzen dituen... Zergatik? gaizki zapaldu eta jarraituz gero lesio larriagoa izan dezakeelako, edo hesteetako mugimendurik ez badu, ondoren koliko bat etor da kioke eta zorritzarrez agian hil, eta abar. Beraz, albaiariak proba bertan behara utzi behar duela esaten badu... ulertu eta zaldia zaintzera.



N.U.

**Ibilbidean aldapak badaude.**

Bai. Lehen fasea 15km ingurukoa da eta bigarrena 12koa. Baso politen artean pasako dira eta gozatzeko zirkuitua da, hots, ez datza zirkuitua azkar egitean. Zenbait aldapa gogor daude eta zaldia kontrolatu nahi badugu mantxo joan beharrek lekuak dira. Raidetan trotean eta pausuan joaten da gehienetan eta mendi eta baso bideak izanik, hori gomendatzen dugu.

**Zirkuitoari dagokionez, zein ezaugarri izango ditu?**

Zirkuitoa Bedaiotik atera eta Urdi lleko lepora joango dira, eta hortik Zaratera. Zaratzen asistentzia izango da, hau da, zaldie ura emateko eta hauek lasaitzeko puntu ura, anoaguzen gisa, bertan zaldiari ura botatzeko zaitu taupadak kontrolatzeko, gero Altzo menditik Zumiz-

keta baserrira jaitsiko dira, asfaltoz eskoletxera eta bide zaharretik Beranetik barrena Bedaio kaskora. Bigarren fasean, asfaltoz Gurbil Handira eta aurreneko faseko bidaiarekin bat egingo dute berriro.

**Epaile lanetan zein ariko dira raidetan?**

Bi albaiari eta ferratzailea. Epaileak raid desberdineko epaileak dira, karrera delegatua, zuzendaria eta zuzendari nagusia ere badago. Gurutze gorria ere izango da. Aurten proba ez dugu federazioan ofizialki sartu nahi izan, baina laguntza eskaini digute. Narciso Arrillaga zaldi hezitzailea ere izango da, zaldia begiratzeko eta jendearen galderei erantzuteko prest. Esan dugun bezala, heziketazko lasterketa da eta mundu honetan jendea sar-tzea nahi da.

**Zaldiarekin harreman bereziren**

**» DATU BATZUK**

- **Eguna.** Irailak 28.
- **Ordua.** 10:00etan.
- **Lekua.** Bedaio.
- **Prezioa.** 10 euro.
- **Izen-ematea.** Hilaren 21a baino lehen, 620 199 166 telefono zenbakian, [www.bedaio.com](http://www.bedaio.com) webgunean edo [bedaioerota@hotmail.com](mailto:bedaioerota@hotmail.com) helbidean.
- **Oharrak.** Ez da federatua izan beharrik parte hartzeko; zaldiak Agrariako txartel berdea izan beharko du; parte-hartzailearen adin-mugarik ez dago.

**bat izatea beharrezkoa izaten al da?**

Ez. Zaldiarekin ibili, zaldia ulertu eta zaindu egin behar da. Nik ideia handirik ez daukat baina zaldia duenak eta zaldia gustatzen zaion baten ondoan egonik, ulertzen duzu zein konexio puntua dagoen. **Zer esan bertaratzeko asmoa duenari?**

Zaldiak gustatu eta goiz polit bat pasa nahi izanez gero, Bedaiora etorri eta gozatu, bai zaldiaren gainean edota ikusle bezala. Zenbait firma komertzialen laguntza izango dugu (Diva pentsuak, Txapel-dun garaikurrak, Albaitack, Eki herrajes eta Fidelity horse) eta hauek eskaintako materiala ere zozkatu eta banatuko da.

**Gomendiorik parte-hartzaileei?**

Derrigorrezkoa da segurtasunagatik parte-hartzaileek kaskoa eramatea eta takoidun bota edo estribo itxia izatea. Zaldi guztiak Agrariako kartila berdea eraman behar dute beharrek txertoak hartuta. Hau, bestelako zaldiek arazorik ez izateko eta zaldiaren osasunak aurretik joan behar duelako eskatzen da. Komenigarria da ere zaldian maiz ibili behar bada zaldi segurua ateratzea.

**Laguntzaileak izan dituzue.**

Bai, eta eskertzekoa da: lehen aipatutakoak, Tolosa 2015, Euskadiko Kutxa, Euskal Hipika Federazioa, Mekalan, Garmendia SL, Ilorreta eta Larrañeta Berri gaztak, Egimendi, Artubi eta Zazpitturri iturgintzak, Ogiberri, Iñaki Balardi harategia, Eiten, Zabala, Txiki-jai, DV, Iñaki Sukaldeak, Kopi bat eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.

argazki lehiaketa

**HITZA** udako argazki lehiaketa

**bidali opor hauetako argazkiak!**

Sari nagusia

2. saria

3. saria

**Beti Alai jateko**

**Azoroko Altuena landetxean,** bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.

Tolosako **Beti Alai jatekoan,** bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

Ibarra **Azoka** dendak eskaintako saski berezia.

**ARGAZKIAK NORA BIDALI**

• P. elektronikoa: [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)

• Postaz: Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzañako Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzañako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emileen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!

## Jubilatuena eguna antolatu dute berriz ere «jai egun alaia igarotzeko»

**Leaburu-Txarama** » Bazkarira joan ahal izateko hilaren 24a baino lehen eman behar da izena Udal Bulegoetan.



Urtero antolatzen dute toka. JA

### ERREDAKZIOA

Leaburu-Txaramako Udalak Jubilatuena eguna ospatuko du hilaren 28ko igandean.

Aspaldiko ohitura da Udalarentzat, orain urte askotatik antolatzen baitute jaieguna berezi hau. Udalak, era berean, «denok elkarrekin jaieguna alaia ospatzeko eta ondo pasatzeko» deia egin die bizi-lagun guztiei.

### Bazkaria

Bazkaria ere antolatu dute eta ordubietan izango da Zazpi Bide Elkartearen.

Bazkarira joaten direnek arrain-pastela, langostinoak eta mariskokrema jango dute lehenengo eta ondoren legatza eta solomilloa piparekin emango diete postrearen aurretik. Kafea, kopa eta purua ere banatuko dituzte menuaren barruan.

Bazkanondoa alaitzeko, gainera, trikitaliak izango dira eta opariak ere banatuko dituztela esan du Udalak.

Bazkarira joateko datorren hilaren 24a baino lehen eman behar da izena, lanorduetan, udal bulegoetara gerturatuta edota bertako telefono zenbakira, 943 67 59 31ra, deituta.

### » EGITARUA

- **11:20.** Leaburu-Txaramako Udalak antolatutako autobusa Txaramako Kartero ondoko autobus geltokitik abiatuko da.
- **11:25.** Baratzondon geratuko da autobusa.
- **11:30.** Papelerako «pisu» ondoren geratuko da berriz ere autobusa.
- **12:00.** Meza Nagusia.
- **12:45.** Udalerriko dantzarien emanaldia.
- **13:30.** Toka txapelketa.
- **14:00.** Bazkaria Zazpi Bide Elkartearen.



Festetako Otsolar dantza taldearen emanaldian jende asko hartu zuen parte. E. EZEIZA

# Pasa berri diren jaietan «istilurik ez egotea» eskertu dute antolatzaileek

**Lizartza** » Antolatutako ekintzak «arrakastatsuak» izan direla eta jende asko hartu duela parte esan du Festa Batzordeak.

### ERREDAKZIOA

Lehenik eta behin lizartzatar zein bisitari guztiak zoriondu nahi izan ditu Lizartzako Festa Batzordeak pasa berri diren jai egunen balorazioa egiterako garaian.

Antolatzaileen hitzetan hilaren bostean hasi eta zortzian amaitu ziren festak «onak» izan dira eta «istilurik ez egotea» ere eskertu dute. Jendearen parte-hartzea azpimarratu du Batzordeak eta presatutako ekintza desberdinak «arrakastatsuak» izan direla ere esan du. Izan ere, PPko Regina Otaola herriko alkateak eta bere lantaldeak hiru ekintza besterik ez zituen antolatu jai egunetarako eta haietan, ondoko irudietako herri kiroletan ikusi daitekeen bezala, ez zuen inork parte hartu.

Era berean, Batzordeak «festa hauek ahalbidetu» duten enpresa guztiei ere euren lana eskertu nahi izan die; Ostatu, Lizarbi, Allians, Goiz-Argi okindegia, Itzala, Gokoetxeandia zerrategia, Lizar supermerkatua, Laskibar, Jose Mari hotela, San Sebastian arrandegia, Balmaseda, Arrospide Egurrak, Onik, Manipulados Araxes, Amnstrong pladurrak, Urkizar konstruktzioak, Karrera arropadenda, Iluzti ileapaindegia, Aran-txa ileapaindegia, Zuhazki, Gokoetxea janari denda, Jose Mari Jatetxea, Otegi eraikuntzak, Insaluz, Eceiza eta Karrozeria Araxesi.



Herri kirol saioan jende ugari izan zen. HITZA

Herriko musikari, dantzari eta txarangari ere esker ona adierazi diete eta baita herriko apaizari ere. «Inakik azken aldian izua sortzen duten otsoak eta ardiak desberdintzen jakin du artzain on baten moduan», azaldu dute. Izan ere, hilaren 7an, festetako egun nagusian, Meza Nagusia izan zen herriko elizan, non Inaki apaizak alkateari eta gainontzeko zinegotzien bizkartzaini pistolak kanpoan uzteko

eskatu zien. Otaolak orduan «euskal kleroko zati batek oraindik ere ardiak otsoekin nahasten» dituela esan zuen. Festa Batzordeak, bere aldetik, «otsoaren erasoan aurrean herriarren babesa eta elkartasuna adierazi» nahi izan dio apaizari. «Besterik gabe, hurrengo urteko festak hobeak izateko nahiarekin agurtzen gara. Ideiak, kritikak, laguntza berria jasotzeko atek irekiak ditugu», gaineratu dute.

## L Laburrak

### Iyuya Urrutia da Aiztondo Argazki Rallyko sariduna

**ADUNA** » Aiztondo Argazki Rallyko sariak banatu ziren pasa den aste-buruan. Parte-hartzaileek mankomunitateko herri bakoitzeko gai desberdina jorratu behar zuten. Guzti-za zapi izan ziren sarituak eta lehenengo saria Iyuya Urrutiarentzat izan zen, bigarrena, Javier Quirosek eraman zuen eta hirugarrena Aitzol Etxegoienek. Gai bakoitzean banatu ziren akzesituen irabazleak Carlos Mediavillak (berdea), Jose F. Loroñok (karobia), Antton Etxeberriak (udara) eta Jose Luis Perazek (baserria) irabazi zituzten.

### Iker Ercilla pilotuak irabazi zuen II Auto Slamoma

**ZIZURKIL** » Iker Ercilla izan zen pasa den igandean Zizurkilen egindako II Auto Slalomaren irabazlea. Bigarren postua Iker Agirrentzat izan zen eta Carlos Cabezudo hirugarren postuan geratu zen. Zizurkileko jaien barruan antolatutako txapelketan lortutako denborak Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketetan hartuko dira kontutan.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## Kirol Ikastaroak hastear daude

**Leitza** » Amazabal Udal Kiroldegian 14 ikastaro ezberdinetan izena emateko aukera zabaldu dute dagoeneko.

### A. IMAZ

Herriko igerilekuak atek itxi bezain pronto zabaldu ditu bereak Amazabal Udal Kiroldegian 2008-09ko Kirol Ikastaroekin.

Hamalau ikastaro ezberdinetan parte hartu nahi duenak urriaren 1a izango du izena emateko azken eguna. Informazio gehiago jaso nahi duenak Kiroldegira joatea besterik ez dauka.

### 14 kirol ezberdin

Step-Tonokirola egin nahi duenak astelehenean eta asteartean edukiko ditu aukeran ikastaroak.



Pilates ikastaroa ere eskainiko dute aurtengo ikasturtean. HITZA

Aerobic-a asteazkenetan egingo dute. Batuka berriz ostegun eta asteazkenetan, gutxienez 10 laguneko taldeetan.

Pilates-en klaseak ostirala izan ezik, asteko beste egun guztietan egin ahal izango da gehienez 15 laguneko taldeetan. Mantenimen-

duko gimnastika astelehenean eta asteazkenetan eskainiko dute. Hauetaz gain, Yoga, Haurren Gimnastika, Multikirolak, Batuka Dance, Haurren Karatea, Gazteentzako Muskulazio Gidatua, Tai-Chi, Futbola eta Pilota ikastaroak egongo dira Amazabalen.



## Gasbidea sartzeko lanak martxan

**LEITZA** » Elbarren kalean, Gaztetxearen aurrean, errepidearen norabide bat itxita aurkitzen da egunean zehar. Bertan gasbidea sartzeko ari dira langileak. Lan hauek amaitzean eta gasa garraiatzen hastean, Leitza ohiko gas konpainiaz gain bigarren konpainia batek gas zerbitzua eskainiko duela jakinarazi dute. ASIER IMAZ

## «Jendeak ez du adio esaten, eskerrik asko baizik»

**Leitza** » Zaldi Eguna izandako arrakastarekin harrিতuta, «zoriontsu» agertu dira Aurrera Perra Taldeko kideak.

### A. IMAZ

Aurrera Perra Taldeak iragan larunbateko Zaldi Egunaren balorazioa egin du. Jon Casares taldeko kideak, ekitaldia «izugarria» izan zela aipatu du, «ez baita normala egin zuen eguraldiarekin horrenbeste jende parte hartzea».

### Zaldi Eguna 2008

Iragan larunbatean ospatu zen Leitza Zaldi Eguna 2008. Eguraldia goizean zeresana eman baldin bazuen ere, arratsaldean ostarreak heldu ziren. Jon Casares, Aurrera Perra Taldeko kidea, gustura agertu da balantzea egiterako unean. «Izugarria izan zen; horrelako eguraldiarekin horrelako erantzuna. Leitza jendea erotua etorri zela ikusten da. Gero gaurdik ere hara eta hona ibili ziren, geratu



Eguraldiari modu batera edo bestera aurre egin zioten Zaldi Eguna 2008an parte hartu zutenek. ASIER IMAZ

gabe eta horrelako eguraldiarekin hori ez da normala».

Antolatzaileez gain, partaideak gustura ibili zirela aipatu du Casares: «Jendeak hemendik alde egin duenean ez du esaten adio, eskerrik asko esaten du. Guk hau antolatzeke egiten dugun lanaz konturatzen dira eta hori da garrantzitsua. Gauean adibidez izugarriko parranda bota ge-

nuen, eta horrelako parranda egiten denean jendea gustura dagoelako izaten da, lagun arte giro-arr».

Larunbata iritsi aurretik antolatzaileak zerura begira egon ziren kezkatuak, egunean bertan, «goizean oso eguraldi txarra egin zuen, baina ibilaldian 30 bat lagun irten ziren. Gero Leitza zatek proban beste horrenbeste partaide irten zi-



ren. Haurrak pottoka gainean, eta bost guri hara eta hona: izugarria».

Eguerdian zaldi proba ikusteko aukera egon zen herriko plazan: «eguraldiarik ordu erdi beranduago hasi ginen eta bigarren proban jendea gosearekin zegoela nabaritu zen. Bazkarian 180 lagun in ziren. Gero Leitza zatek proban beste horrenbeste partaide irten zi-

ren. Haurrak pottoka gainean, eta bost guri hara eta hona: izugarria».

tsaldean Inguruarten jarraitu zuten heziketa erakustaldiek. Casaresen esanetan, «oso polita izan zen arratsaldekoa eta lehengo urtean baino jende gehiago bildu zen». Gurdiekin zirkuitua, heziketa mota ezberdinak eta Jinetada. «Hiru nikaraguar irten ziren eta ikusgarria izan zen. Laxoarekin duten trebetasuna, heziketa... oso polita izan zen».

## Hilberriak

### ARACELI ORTIZ IRAETA



Muxu handi bat eta gero arte



**IBARRAN**  
2008ko  
irailaren 17an

Xeplakartea

### PILAR ITURRALDE BLANCO

(Javier Orus Parcharen alarguna)

Atzo hil zen, 87 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golan bego-

Seme-alabak: Javier eta Oti, Sole eta Inigo, Pili eta Jose Manuel; ilobak: Javier, Leire, Antonio, Ignacio, Miguel eta Patricia, Maria eta Nestor, Ainara, Maider eta Andoni, Jon eta Eneke; birilobak: Eneke, Oier; anaiak: Ramon (?), Joaquin (?), Martin (?), eta Mari, Eugeni (?), Concha (?), Juan (?), eta Maribou, Lola (?), Teresa (?), Jose Mari eta Rosita; ezkonanaiak: Ilobak, lehengusak eta gainerako ahaldeak. Haren animaren alde otortu bait eskatzen dituzte eta arren etor zaitzela BIHAR osteguna, 19:00etan, SAN FRANCISCO parrokian elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Zumalakaregi ibilbidea, 9-1. Oharra: Hilbela Tolosako Funeraria Vascongada Beilatokian egongo da bihar 11:00ak arte.



**TOLOSA**  
2008ko  
irailaren 17a

### MANUELA OLAIZOLA ALKORTA

Atzo hil zen, 90 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golan bego-

Haren koinata: Faustina Lazkano (Jesus Olaizolaren alarguna); ilobak: Jesus Mari eta Paloma, Arantxa eta Sergio, Inaxio eta Gema, Begoña eta Jose Mari, Jose Miguel eta Susana; bilobak: Jurgi, Kati, Ander, Nerea, Jon, Iñaki, eta gainerako ahaiak. Haren animaren alde otortu bait eskatzen dituzte eta arren etor zaitzela GAUR asteazkena, 19:00etan, Zarauzko Santa Maria La Real parrokian egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Salbide 1, 1-Esk. Oharra: Hilbela Zarauzko Beilatokian.



**ZARAUZ**  
2008ko  
irailaren 17a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Azoka

■ **Tolosa.** Bihar hasi eta igandera arte X. Garagardo Festa, kirol taldeek eta Udalak antolatuta, Zerkausia.

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Izaskun izena dutenen toka txapelketa 12:00etan, meza ermitan eta bazkaria izango da hilaren 21ean Izaskun jatetxean eta ondoren Iñigo Perurenak alaituko du giroa. Izena emateko, goizetan deitu 943 675927 telefono zenbakira hilak 18a baino lehen.

■ **Tolosa.** Kultura sailak antolatzen dituen kultur tailerren matrikulazio epea, hilaren 15etik 26ra. Iazko ikasleek 15etik 19ra eta berriek 22tik 26ra.

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Isabel Prietok *Eskolara oinez* hitzaldia emango du bihar Usabalgo Laskorain Ikastolako areto nagusian 17:30etik aurrera, Mugikortasun Iraunkorraren Astearen barruan. Donostiako Udaleko Mugikortasun eta Auzoak eta Hiritarren Partehartzea sailetako Eskola Bidea programaren baitan.

### Zinema

■ **Tolosa.** *West side story* filma emango dute bihar, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzotz auzoa, 9. 943 675118.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Parte hartzeko azken astea

### MOZAMBIKE

Maria Jesus Olanok argazki eder hau bidali du lehiaketara. «Hemen bidaltzen dizuedan argazkia Mozambikeren aterea da, hain zuzen Ilha de Ibo-n, Tanzania-ri gertu dauden irletako batean ateratu genuen. Bertako emakume gazteek, behin adin batera iritsita, arpegia zuriztatzeko ohitura dute, mushiro-arekin, bikotea aurkitzeko edertasuna erakutsi asmoz».



## A Agurrak



### Zorixonak!

**Nestor Barriola Goikoetxea (Tolosa).** Gaur? urte.  
Zorionak etxeko bihurturri.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaiaberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko  
leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

**DONOSTIA** • Elixabete Eizagirre leaburuarrak etxean igaro ditu oporrak. «Familia askorentzat solidaritate oporrak izan dira, gure artean saharako errefuxatu kanpamentuetatik etorritako haurrak egon bait dira. Argazki hau Donostian dago aterata. Uda igarotzera bi hilabetez gure herrietara etorri diren haur sahararrak dira. Desertura itzuli aurretik itsasoa ikusten duten azken aldia zen honakoa», azaldu du.